

BEHATXULO[TIK]

Juantxo EGAÑA



Ricardo MARTIN. PHOTO CARTE FUNTSA. KUTXATEKA

KIROLAK ASPALDITIK PIZTEN DU GRINA

Pilota, txirrindularitza, futbola, traineruak edota errugbia bezalako kirolek euskal herritarren artean pizten duten zaletasuna benetan grinatsua da. Beti euskal kirolariei eta, oro har, kirolari babesa emanez. Ia 100 urte igaro dira argazki hau atera zenetik, Donostiako Atotxa zelai zaharrean jokaturako futbol partida batean, nahiz eta Euskal Herriko edozein herritan izan zitekeen. Irudi honen egilearentzat, Ricardo Martinentzat, ekitaldia bera bezain garrantzitsuak ziren ikusleak, bere obra osoan islatzen den bezala. Euskal Herrian, kirolarekiko zaletasuna, pasioa eta, kasu honetan, futbola, duela mende bateko berak dira; ikusleak, eszenatokiak eta kirolariak bakarrik aldatu dira.